



AIO, PELAIIO!

Antton Kazabon

Aitziber Alonsoren marrazkiak

Desclée De Brouwer





# Aitaren sukarra

Goiz batean, aitak ez zuela lanera joan nahi esan zuen, eta hantxe geratu zen ohean sekulako kasketarekin. Ordu-rako ama lanera joana zen, eta bakarrik gelditu nahi zuen etxean. Martxel, semea, oso serio jarri zen, eta berehala jaikitzeke esan zion.

—Altxa ohetik oraintxe bertan, aita!

—Ezin dut, Martxel. Nahi nuke baina, gaixorik nago.

—Gaixorik? Eta non hartzen duzu min?

—Zera, hemen, tripan uste dut.



—Tripan? Oso ongi. Oraintxe pres-  
tatuko dizut kamamila bero-beroa. Iku-  
siko duzu nola joango zaizkizun tripa-  
ko minak. Orain altxa hortik eta zoaz  
bizarra moztera! Hori ez da eta gizona-  
ren planta!

—Ezetz, bada. Ezin dudala. Uste dut  
sukarra ere badudala. Hotzikarak ditut,  
Martxel.

—Hotzikarak? Oraintxe ikusiko dugu.

—Ez al didazu sinisten? Baina zer  
seme klase zara zu?

Eta alaba Marik termometroa jarri  
zion kontuz-kontuz besoaren azpian.

—Orain ez mugitu besoa bost minu-  
tuan! Entzun al didazu?

—Bai, Mari, bai. Badakit. Besteetan  
bezala, neska.

